

GIZONDUZ

EKIMENA
2022ko
MEMORIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

BERDINTASUN, JUSTIZIA
ETA GIZARTE POLITIKETAKO SAILA
DEPARTAMENTO DE IGUALDAD,
JUSTICIA Y POLÍTICAS SOCIALES



gizonduz

1. SARRERA	03
2. 2022AN EGINDAKO JARDUKETAK	04
2.1. WEBGUNEA	04
2.1.1. Elkarriketak	05
2.1.2. Sare sozialak	05
2.2. PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA	05
2.2.1. Gizonduz aurrez aurreko ikastaroak	07
2.2.2 <i>Online</i> ikastaroak	17
2.2.2.1 <i>Online</i> sentsibilizazioa, 10 ordu	17
2.2.2.2 <i>Online</i> prestakuntza, 25 ordu	19
2.3 “GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0” PROIEKTUA	21
2.4 «GIZONAK EREMU POLITIKOAN» PROIEKTUA	24
2.5 «MASKULINITATEAK, BERDINTASUNA ETA GAZTE ATZERRITARAK» PROIEKTUA	25
2.6 «GIZONOK ESAN ETA EGIN» KANPAINA	28
2.7. «GIZONEZKOAK, MASKULINITATEAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK. BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA» NAZIOARTEKO KONGRESUA	29
2.8 SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERAK	34
2.9 AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK	35
3. PROGRAMAREN HELBURUEN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA	35

1.0

Sarrera

Gizonduz Eusko Jaurlaritzaren ekimen aitzindari bat da, Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeak bultzatua, gizonak emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaz kontzientziatu daitezen eta horretan inplikatu daitezen eta parte har dezaten bultzatzeko. Hori guztia ikuspuntu feministan, giza eskubideen ikuspegian eta dibertsitatearen integrazioan oinarrituta.

Helburuak Gizonduz ekimena sortzen duen agirian zehazten dira, eta honako hauek dira:

- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde sentsibilizatuta dauden gizonen kopurua handitzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea.
- Gizonak ardurakideagoak izatea etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan.

Gizonduz ekimenaren barruan egindako jarduerak honako urte hauetako memorieta daude jasota: 2007-2010, 2011, 2012, 2013, 2014, 2015, 2016, 2017, 2018, 2019, 2020 y 2021.

2.0

2022an egindako jarduketak

2.1. WEBGUNEA

2022an, Gizonduz ekimenari buruzko atala administratzen jarraitu da Emakunderen webgunean. Apartatu honetan, ekimenari buruzko informazio asko agertzen da euskarri ezberdinetan, eta atal hauetan banatuta: prestakuntza, elkarrizketak, kanpainak, gizon taldeak, bloga, materialak, Gazteak Berdintasunean 2.0, jardunaldiak eta abar.

2022an, Gizonduz webgunean 4.860 bisita izan dira guztira.



2.1.1. ELKARRIZKETAK

Atal honetan, honako elkarrizketa hauek egin dira:

- **Iriome Rodríguez.** AHIGEko presidentea (Genero Berdintasunaren aldeko Gizonen Elkarte).
- **Eduardo Portilla.** Aitatasun arduratsuaren lantegien dinamizatzailea Vitoria-Gasteizko Udalarentzat.
- **Eva Istúriz.** Nafarroako Berdintasunerako Institutuko zuzendaria.
- **Esteve Segura.** Maskulinitate Pluraleko Zentroko (Bartzelona) arduradun teknikoa.
- **Isa Duque («Psicowoman»).** Psikologoa, sexologoa eta ziberekintzaile feminista.
- **Lluc Pagès.** Hautzarroan, emakumearen aurkako indarkerian eta maskulinitateetan espezializatutako irakaslea eta gizarte-hezitzailea.

2.1.2. SARE SOZIALAK


Gizonduz **Facebooken** dago 2009. urteaz geroztik. 2022an, 5.191 jarraitzaile izan zituen, eta batez beste 12.198 pertsonengana iritsi zen, % 41,4 emakumeak eta % 58,6 gizonak. 2022an, 194 argitalpen egin ziren.

Gizonduzen **Twitter** sareko kontuak 2.233 jarraitzaile ditu. 2011z geroztik 7.120 txio idatzi dira guztira, horietako 250 2022. urtean. Gizonduz profilak 14.999 bisita eta 102.094 txio-ikustaldi izan ditu guztira.

Halaber, Gizonduz ekimenak kontu bat du **YouTube-n**: berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako hitzaldien, lantegien eta iragarkien bideoak eta ikus-entzunezko materialak ikus daitezke. YouTube-ko Gizonduz orrialdean 66 bideo daude, eta 2022. urtean 2.100 aldiz ikusi dira bideo horiek; kontua sortu zenez geroztik (2009an), 25.738 aldiz ikusi dira bideoak.

2.2. PRESTAKUNTZA- ETA SENTSIBILIZAZIO-PROGRAMA

2009ko martxoan jarri zen abian **Gizonduz sentsibilizazio- eta prestakuntza-programaren** lehen edizioa, eta 2022ko abendura arte 27.603 pertsonak hartu dute parte ikastaroetan. Ikastaroak, motaren arabera, honela banatzen dira:



- Gizonduz aurrez aurreko ikastaroak
- GB aurrez aurreko ikastaroak
- 60 Orduko online ikastaroa
- 10 Orduko online ikastaroa
- Neurrira egindako online ikastaroa
- 25 Orduko online ikastaroa
- Besteak

Ikastaro mota	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra ¹	Ez du erantzun	Guztira
Gizonduz aurrez aurreko ikastaroak	6.493	10.630	92	109	17.021
Gazteak berdintasunean aurrez aurreko ikastaroak	1.284	2.597	32	7	3.920
Gizonak eremu politikoan proiektua ²		303			303
Gazte atzeritarren proiektua		44			44
60 Orduko online ikastaroa	602	393	0		995
10 Orduko online ikastaroa	853	632			1.434
Neurrira egindako online ikastaroa	558	1.150	23	27	1.758
25 Orduko online ikastaroa	1.434	641	2		2.077
GUZTIRA	11.224	16.087	149	143	27.603

2022an, 192 ikastaro egin ziren guztira, eta 4.408 pertsonak hartu zuten parte haietan; horietatik 2.903 gizonak ziren (% 65,85), 1.434 emakumeak (% 32,53), 32 ez-bitarrak (% 0,72) eta 39k (% 0,95) ez zuten erantzun.

¹ Grafiko honetan bi neurketa-kategoria berri txertatu dira, 2018an egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra (52 pertsona, 2018an) eta Ez du erantzun (18 pertsona, 2018an). (Zuzentzeko proposamena behean)


² Parte-hartzaileak 2017tik aurrera zenbatzen dira.

2.2.1. GIZONDUZ AURREZ AURREKO IKASTAROAK

2022an, 11 ikastaro eman dira *webinar* formatuan ikasleak online egonik, eta beste ikastaro batean ikasle aurrez aurre eta online egon dira, formatu mistokoa izanik. Aurrez aurreko ikastaroen apartatu honetan sartu ditugu emandako orduak eta parte hartu duten ikasleak; izan ere, online ikastaroetan ez bezala, ikasleak etxetik edo enpresatik hartu dute parte zuzenean eta ikastaroaren garapenean ere izan dute parte hartzeko aukera.

2009tik 2022ra, biak barne, aurrez aurreko 919 ikastaro egin dira (horietatik 113 2022an). Guztira, 17.324 pertsonak³ hartu dute parte, horietatik 10.630 gizonak ziren (% 61,35), 6.493 emakumeak (% 37,4), 92 ez-bitar gisa identifikatutako pertsonak (% 0,53), eta galdera honi erantzun ez zioten beste 109 pertsonak (% 0,62).

Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera⁴



³ Datu horietan ez dago jasota Gazteak Berdintasunean 2.0 programako ikasleen kopurua, zeina aurrerago baitago zehaztuta.


⁴ Grafiko honetan bi neurketa-kategoria berri txertatu dira, 2018an egindako parte-hartzaileen genero-identitatearen auto-identifikazioari dagokionez: Ez-bitarra eta Ez du erantzun

Aurrez aurreko ikastaroetan izan den parte-hartzearen bilakaera

URTEA	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	Ez du erantzun	GUZTIRA
2009	241	512	-	-	753
2010	900	895	-	-	1.795
2011	638	821	-	-	1.459
2012	677	768	-	-	1.445
2013	389	628	-	-	1.017
2014	375	662	-	-	1.037
2015	354	467	-	-	821
2016	382	630	-	-	1.012
2017	362	464	-	-	826
2018	263	617	29	41	950
2019	462	1.205	32	34	1.733
2020	292	637	6	7	942
2021	579	1.000	22	11	1.612
2022	579	1.324	3	16	1.922
GUZTIRA	6.493	10.630	92	109	17.324

Ikasleek iraupen-tipologia desberdinetako ikastaroetan parte hartu dute 2009tik 2022ra, biak barne.


Tipologia horiek honela banatzen dira:



Ikasleen % 8,4k 3 ordura arteko ikastaroetan parte hartu dute; ikasleen % 80,8k 4 ordutik 9 ordura bitarteko ikastaroetan; eta, azkenik, ikasleen % 10,8k, 10 ordutik gorakoetan. Aurrez aurreko ikastaroetan, iazko joera-aldaketa mantendu da; izan ere, 4 ordutik 9 ordura bitarteko ikastaroak ugaritu egin dira, eta 10 ordu edo gehiagoko ikastaroak murriztu. Horren arrazoi nagusia da programa esanguratsuak aurrez aurreko formatu izatetik formatu misto izatera igaro direla (online eta aurrez aurrekoa uztartuta). Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren mendeko Polizia eta Larraldietako Euskal Akademiarena izan da kasu horietako bat. Aurreko urteetako lankidetzeta-programarekin jarraituz, 2022an prestakuntza mistoa izan da gehienbat: 10 orduko prestakuntza online formatuan, Moodle plataforman, eta 5 orduko prestakuntza aurrez aurrekoan. Horrela, pertsona bakoitzeko dedikazio osoa bost ordu handitu da 2021eko datuekin alderatuta, nahiz eta modu berezian alderatu ziren. XXX. promozioiko 44 talderi eman zaizkie ikastaroak; guztira, ikasle bakoitzak aurrez aurreko 220 ordu eta online bidezko 10 ordu prestakuntza egin ditu.

IKASTAROAK 2022	Ordu kopurua	Orduen guztizkoaren ehunekoa	Ikasleak, guztira	Ikasleen guztizkoaren ehunekoa	Gizonak	Emakumeak	Ez du erantzun	Ez-bitarra
23 ikastaro 3 ordura arte	45	% 8,4	466	% 24,2	323	143	0	0
85 ikastaro 4 - 9 ordu	432,5	% 80,8	1.396	% 72,7	971	406	3	16
5 ikastaro 10 ordu edo gehiagokoak	58,5	% 10,8	60	% 3,1	30	30	0	0
GUZTIRA, 113 ikastaro	536	% 100	1.922	% 100	1.324	579	3	16

Aurrez aurreko ikastaroak 2022



2022an honako hau izan zen aurrez aurreko ikastaroen banaketa, entitate eskatzaileen arabera:

Enpresekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
Arteche	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
Azti	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	2	2
Cebek	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, ardurakidetasuna, lan-arriskuen prebentzioa eta sexu-jazarpena	Bazkideak	3	4	12
Gehilan-Atefrisa	Maskulinitateak, berdintasuna, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Bertako langileak	1	9	9
Loire-Gestamp	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, eta sexu-jazarpeneren zein sexuan oinarritutako jazarpeneren prebentzioa.	Bertako langileak	4	6	24
Grupo Avanza Transporte	Gizonak, berdintasuna eta lan-mundua, ardurakidetasuna, lan-arriskuen prebentzioa eta sexu-jazarpena	Bertako langileak	6	7	49
Ingartek	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4
Ormazabal	Maskulinitateak, berdintasuna, sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena	Berdintasun-batzordea	1	4	4
Polmetasa	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	7	4	24
RPK	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	4	4

Erakunde publikoekin elkarlanean egindako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
Amurrioko Udala	Maskulinitateak, berdintasuna eta politika	Amurrioko Udaleko zinegotziak	1	2	2
Arabako Foru Aldundiko kalkuluzentroa	Gizonak, maskulinitateak, ardurakidetasuna eta enpresa-kontziliazioa.	Bertako langileak	4	4	16
Donostiako Udala Mugikortasun saila	Maskulinitateak, berdintasuna, jokabide arriskutsuak eta indarkeria matxista	Bertako langileak	1	10,5	10,5
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Maskulinitateak eta berdintasuna	XXX. promozioko ikasleak	44	5	220
Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademia	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	1	10	10
Osakidetza	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	4	3	12
Osakidetza	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	3	6	18
Osakidetza	Maskulinitatea eta indarkeria matxista	Bertako langileak	2	6	12
Uliazpi	Maskulinitateak, sexu-jazarpenera eta sexuan oinarritutako jazarpenera	Bertako langileak	1	3	1

Elkartekin eta beste hezkuntza-erakunde batzuekin elkarlanean antolatutako aurrez aurreko ikastaroak

Entitatea	Edukiak	Norentzat diren	Ikastaro kopurua	Ikastaro bakoitzaren iraupena ordutan	Ordu kopurua guztira
Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (Nicolás Larburu)	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Irakasleak	1	4	4
Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutua (Nicolás Larburu)	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Ikasleak	1	9	9
AEK	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	4	1,5 y 4	9
Alboan	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	2	2 y 4	6
Bizkaiko Psikologia Elkargoa	Gizonekin eginiko lana: maskulinitatea, indarkeria matxista eta berdintasuna.	Elkartuak	1	12	12
Gasteizko Gurutze Gorria	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	2	4	8
Berdintasunaren Aldeko Tolosako Gizonezko Taldea	Maskulinitateak eta berdintasuna, gizonekin lan egitea.	Berdintasunaren aldeko taldeko gizonak	1	2	2
IKA	Maskulinitateak eta berdintasuna	Bertako langileak	3	4,5	13,5
Kolore Guztiak	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Bertako langileak	1	3	9
LEIN Mondragón Unibersitatea	Maskulinitateak eta esku-hartze soziala gizonekin	Bertako langileak	2	2	4
Urgatzi	Maskulinitateak eta berdintasuna	Ikasleak	1	16	16

AURREZ AURREKO IKASTAROEN BALORAZIOAK:

Jarraian, aurrez aurreko ikastaroetako parte-hartzaileek emandako balorazioen batezbestekoak ageri dira, 6 puntuko baremoa oinarri hartuta (1 da puntuaziorik txikiena, eta 6, handiena).

1.252 balorazio jaso dira: horietako 382 emakumeek egindakoak dira; 847 gizonek egindakoak; beste 4 ez-bitarra epigrafean jaso dira, eta 19 pertsonak ez diote galderari erantzun. Kontuan izan behar da ikastaroa egiten duten elkarteek eta erakundeek jasotako ebaluazio-galdetegi zati bat formatu propiokoak direla; hori dela eta, zaila da bateratzea. Horregatik, ez daude hurrengo tauletan jasota.

Jasotako ebaluazio-galdetegi kopurua, sexuaren eta adinaren arabera

Ebaluazioak sexuaren eta adinaren arabera	16-24 urte	25-30 urte	31-54 urte	55 urte eta gehiago	EDE	Guztira
Emakumeak	48	146	159	26	3	382
Gizonak	122	276	409	37	3	847
Ez-bitarra			4			4
Ez du erantzun	2	6	6	3	2	19
GUZTIRA	172	428	578	66	8	1.252

Jasotako balorazioak (Otik 6ra)


	Emakumeak	Gizonak	Ez-bitarra	EDE	Orokorra
Ikastaroaren balorazio orokorra	5,3	5	4,8	5,9	5,1
Gaiaren gaineko aurretiazko ezagutza	4,2	3,8	3,3	4	3,9
Ezagutzak areagotzea	5,1	4,9	4	4,6	4,9
Sentsibilizazioa areagotzea	5	4,8	3,8	4,3	4,8
Edukia	5,1	4,8	5	4,3	4,9
Hizlaria	5,6	5,4	5,5	5,1	5,4
Dinamizazioa	5,4	5,2	5,5	5,2	5,2
Taldearen partaidetza	5,2	4,51	5,5	5,1	4,8
Antolamendua	5,3	4,9	5,3	4,7	5,1
Eremua	5,1	4,9	4,5	4,7	5
Erabilitako materialak	4,9	4,6	5	4,4	4,9
Bizitza pertsonalerako baliagarritasuna (%)	% 97	% 95	% 75	% 89	% 97,25
Bizitza profesionalerako baliagarritasuna (%)	% 97	% 92	% 50	% 95	% 95,75

Aurreko urteetan bezala, ikasleek modu positiboan balioetsi dituzte erabilitako materialak eta erabilitako metodologia partaidetzan oinarritzea. 4tik beherako balio bakarra parte-hartzaileek prestakuntza-saioaren aurretik zuten ezagutzaren balorazioari dagokio.

Ikastaroen balorazioek aurreko urteetako zifren antzekoak izaten jarraitzen dute, kategoria ez-bitarrekoak (4 pertsona) izan ezik, horiek nabarmen jaisten baitira «Bizitza profesionalerako baliagarritasuna» delakoan. Oro har, esan daiteke Gizonduz programaren barruan eskaini diren aurrez aurreko ikastaroek bete egin dituztela bertaratutako ikasleen espektatibak, bai eta programarenak ere.

Ebaluazio-galdetegiko alderdien gainean egindako balorazioan, ez da desberdintasun nabarmenik ikusten sexuaren edo adinaren arabera.

Ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen batez besteko balorazioak (0 eta 6 bitartean)



Grafikoan ikus daitekeen moduan, ikastaroak antolatzeaz arduratu diren erakundeen balorazioak oso altuak izan dira.

Ondoen balioetsitako alderdiak honako hauek izan dira: «trebatzailearen profesionaltasuna» (5,75), «bizkortasuna kudeaketan» (5,78) eta «egutegi-erraztasuna» (5,78).

Ikasleen balorazioetan nahiz erakunde antolatzaileen balorazioetan honako hobekuntza hauek proposatu dira: prestakuntzak luzeagoak izatea, jorratutako gaietan sakontzea eta ikastaroek lanerako erremintak eskaintzea.

2.2.2 ONLINE IKASTAROAK

2.2.2.1 ONLINE SENTSIBILIZAZIOA, 10 ORDU

Ikastaro honetan, alderdi hauek landuko dira besteak beste:

- Genero-desberdintasunen jatorria.
- Zer paper jokatzten duten sozializazioan sexuaren araberako rolerak eta estereotipoek.
- Maskulinitate-ereduak berrikustea.
- Zer rol betetzen duen gizonen bizitzan beste pertsonen eta norberaren zaintzak.
- Gizonen inplikazioa etxeko lanetan eta beste pertsonen zaintzan.
- Sozializazio sexistak gizonen ere eragiten dizkien genero-arazoak.
- Zer paper jokatzten duen indarkeriaren legitimazioak identitate maskulinoen eraikuntzan.

Online ikastaroa 2009an hasi zen ematen. Ordutik 2021era, 1.262 lagunek (695 emakumek eta 566 gizonek) arrakastaz bukatu zuten ikastaroa.


Ikastaroa arrakastaz bukatu zuten pertsonak

	Emakumeak	Gizonak	Guztira
2009	42	64	106
2010	199	46	245
2011	53	18	71
2012	40	14	54
2013	30	20	50
2014	24	22	46
2015	18	25	43
2016	29	51	80
2017	21	36	57
2018	18	66	84
2019	23	59	82
2020	60	66	126
2021	138	79	218
2022	151	72	223
Guztira	846	638	1.485

2022an, guztira, 223 lagunek (151 emakumek eta 72 gizonak) arrakastaz bukatu zuten ikastaroa. Ikastaroa egin duten gizonen proportzioa (% 32,3) aurreko urtekoa baino txikiagoa da (% 36).

2022an, 110 ebaluazio-galdetegi jaso ziren.

2022: Ikastaroaren gaineko balorazioa (6 puntu gehienez)



	Guztira	Emakumeak	Gizonak
Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta pertsonalerako? BAI	101	% 96	% 96
Baliagarria iruditzen zaizu zure bitzta profesionalerako? BAI	97	% 94	% 90

Ikastaroaren (5,19) eta haren edukien (5,03) balorazioa oso positiboa izan da.

Azpimarratzeko modukoa da ikastaroa egin duten pertsonen % 99 baino gehiagoren ustez, batez beste, ikastaroa baliagarria izan dela bitzta pertsonalerako eta profesionalerako.

2.2.2.2 ONLINE PRESTAKUNTZA, 25 ORDU

«Maskulinitateak». Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak» izeneko ikastaroaren bitartez, ikasleek gaitasun teorikoak eta praktikoak garatzea lortu nahi da, gure gizartean maskulinitatea nola eraikitzen den aztertzeko. Hori guztia berdintasunaren ikuspegitik egiten da, ikasleek eskura ditzaten hala errealitatea genero-ikuspegiarekin aztertzeko ezagutzak nola errealitate hori ulertzea ahalbidetzen duten tresna metodologikoak. Gure gizarteetan dauden maskulinitate-adierazpen anitzak jorratzen dira, baita horrek emakumeei eta gizonari eragiten dizkien ondorioak ere. Aldi berean, emakumeen eta gizonen berdintasunean egin diren aurrerapenak, dauden erresistentzia nagusiak eta agertu diren diskurtso sexista berriak aztertzeko, indarkeria matxistari buruzko azterketan sakonduz, eta biztanle gazteenengan, kausetan eta adierazpen ohikoenetan zentratuz.


Aurten, online ikastaro hau UPV-EHU Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundearekin (IVAP) lankidetzan egin da. Emakundek ere 4 ikastaro antolatu ditu.

2021: Maskulinitateei buruzko 25 orduko online ikastaroa egin zuten pertsonak

Entitate antolatzailea	IKASTAROA	EMAKUMEEK	GIZONAK	Ikastaroa gainditu duten ikasleak GUZTIRA
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	15	4	19
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	37	13	50
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	14	1	23
UPV-EHU	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	36	23	47
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	50	11	61
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (1. edizioa)	6	8	14
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	28	23	51
EMAKUNDE	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak. (2. edizioa)	5	2	7
IVAP	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna. Erronkak eta erresistentziak.	16	15	31
IVAP	Maskulinitateak. Gizonak eta berdintasuna: erronkak eta erresistentziak.	4	4	8
	GUZTIRA	211	104	315

2022an, online ikastaroaren 187 ebaluazio-galdetegi jaso ziren. 77 emakumek, 40 gizonak, «besteak» erantzun zuten 6k eta identitatearen galderari erantzun ez zioten 64 pertsonak erantzun zuten.

2022: Batez besteko balorazioak (10etik)



	Guztira
Baliagarria iruditzen zaizu zure bititza pertsonalerako? Bai	% 97
Baliagarria iruditzen zaizu zure bititza profesionalerako? Bai	% 88

Ikastaroaren balorazio globalaren batezbestekoa (10etik 9) oso positiboa da. Material teorikoei ere balorazio oso ona eman zaie (10etik 8,6).

Azpimarratu beharra dago, ikastaroari buruzko gogobetetze-inkesta egin duten partaideen % 97ren arabera, ikastaroa baliagarria izan dela euren bititza pertsonalerako; eta % 88ren iritziz, baliagarria izan dela ikastaroa euren bititza profesionalerako.

2.3 “GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0” PROIEKTUA

«Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektuaren bidez, nerabeen eta gazteen kontzientziazioa eta inplikazioa bultzatu nahi da, eta, bereziki, mutilena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra egin dezaten; horretarako, hezkuntza-tresna berri-zaileak baliatuko dira, teknologia berrietan oinarrituta.

Atal hauek ditu proiektuak:

- Online abentura grafiko bat (bideojoko bat): erabiltzaileei egoera batzuk planteatuko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak, etab., izango dituzte, eta erabaki bat hartu beharko dute zenbait aukeraren artean.
- Unitate eta fitxa didaktikoak, irakasleei zein ikasleei zuzenduta.

2016tik 2022ra bitartean, 37 ikastetxetan egin dira ikastaroak guztira. Guztira, 3.920 ikaslek parte hartu dute: 1.284 neska, 2.579 mutil, 32 ez-bitar eta erantzun ez duten 7 pertsona.


2022an zehar, prestakuntza eman da 21 ikastetxetan, iaz baino bi aldiz gehiago:

IKASKETA-ZENTROA	UDALERRIA
IES Aniturri BHI	Agurain
Lautada Ikastola	Agurain
Berrio-Otxoa Institutua	Bilbo
Armeria Eskola	Eibar
IMH Fabrikazioaren Zentro Aurreratua	Elgoibar
IES Bizarain BHI	Errenteria
CIFP Don Bosco LHII	Errenteria
CIFP Andra Mari LHII	Galdakao
Mendialdea IPI	Kanpezu
EAGI Eraikuntza Eskola	Lasarte-Oria
IES Oñati BHI	Oñati
CIFP Don Bosco LHII	Tolosa
IES Mendabaldea BHI	Vitoria-Gasteiz
ADSI Fundazioa	Vitoria-Gasteiz
CIFP Mendizabala LHII	Vitoria-Gasteiz
Antoniano Ikastetxea	Zarautz
Oteitza Lizeo Politeknikoa	Zarautz
Salbatore Mitxelena Ikastola	Zarautz
Lizardi Institutua	Zarautz
La Salle	Zarautz
CIFP Monte Albertia LHII	Zarautz

Ikasleekin egindako ikastaroetan 1.057 gaztek parte hartu dute guztira: 230 neska, 793 mutil, 27 ez-bitar eta erantzun ez duten 7 pertsona. 226,5 prestakuntza-ordu eman dira guztira ikasleekin, 115 taldetara iritsi da, eta horietako gehienetan 4 ordu eman dira talde bakoitzeko. Irakasleei 5 ikastaro eman zaizkie.




Prestakuntzak egin diren ikastetxeen balorazioek honako emaitza hauek eman dituzte (1etik 6ra bitartean)



GAZTEAK BERDINTASUNEAN 2.0 bideojokoaren inguruan ikasleek egindako balorazioei dagokienez, guztira 487 balorazio jaso dira: mutilen 350 balorazio jaso dira, nesken 132, ez-bitarren 2, eta galdera horri erantzun ez dioten pertsonen beste 2.

BALORAZIOEN EMAITZAK:

Ikasleen % 75 ados eta oso ados dago bideojokoa dibertigarria dela esatearekin, eta % 70ek esan du arreta handiagoa jarri diola gaiari. Oro har, ondo ulertzen dute bideojokoaren dinamika (% 73) eta horrelako tresna didaktiko gehiago erabili beharko liratekeela uste dute (% 78).



2.4 «GIZONAK EREMU POLITIKOAN» PROIEKTUA

2017an, kargu politikoak dituzten gizonen zuzendutako ekimena jarri zen martxan, gizon horiek beren eragin-eremuan berdintasuna sustatzea lortzeko eta, bereziki, beste gizon batzuek kausa horrekin duten konpromiso pertsonala eta kolektiboa sustatzeko.

Horretarako, gizon politikarien bi talde sortu ziren: bata Eusko Jaurlaritzaren barruan eta bestea udal-mailan, EUDELekin lankidetzan. Prestakuntza, gogoeta eta trakerako espazioak ziren, eta politikan lan egiten duten gizonen partaidetza eta inplikazioa indartzea zuten helburu, gizon horiek erreferenteak baitira eta erabakiak hartzeko guneetan parte hartzen baitute.

Gizon politikariekin egindako lan hori jardunbide egoki gisa aurkeztu zen Europako Udalerrien eta Eskualdeen Biltzarrak (CEMR) 2019ko azaroaren 19an Bruselan antolatutako #InvolveMen nazioarteko mintegian.



Bideo honetan daude laburbilduta esperientziaren lehenengo faseko ideiak eta helburuak.

Gizon politikariak berdintasunaren alde

Esperientzia positiboki balioetsi ondoren, ekimenari jarraipena emateko asmoz, 2020aren hasieran bigarren fase bati ekin zitzaion, gizon kargu publikodunei zuzendutako berdintasunerako gida-zirriborro batean oinarrituta. Plana egiteko 5 lan-saio egin ziren (2 Eusko Jaurlaritzako politikariekin, 2 tokian tokiko politikariekin eta saio bat elkarrekin), eta guztira 25 gizonek hartu zuten parte. Era berean, antzeko prestakuntza-prozesuak egiten dira Arabako Kuadrilletako gizonen politikariekin.⁵

Gainera, 2021ean, bi prestakuntza-ildo jarri ziren abian, administrazio autonomikoetan, foru- eta toki-administrazioetan, Eusko Legebiltzarrean eta Batzar Nagusietan postu politikoak betetzen dituzten gizon guztientzat irekiak. Alde batetik, solasaldiak egin ziren berdintasunean adituak diren pertsonekin eta, bestetik, «prestakuntza-topaketak» direlakoak; hau da, aldizkako online saioak, bereziki gizon politikarientzat diseinatutako prestakuntza-pilula formatuan. 2021ean, 4 prestakuntza-jarduera egin ziren (ikus [Gizonduz Memoria 2021](#)).

⁵ Prestakuntza 2019an hasi zen, eta Añanako Kuadrillan, Aiarakoan eta Kanpezu-Arabako Mendialdekoan egiten da.

Jarraian, 2022an egindako prestakuntza-jarduerak adierazten dira. Guztira, honako alderdi haue-
tako 108 politikarik hartu zuten parte: EAJ, EH BILDU, PSE-EE eta Elkarrekin Podemos-IU.

- 2022/05/18: «Berdintasunerako Euskal Legearen erreformaren aldaketa nagusiak, bereziki gizonezkoei zuzendutako neurriei dagokienez». Ander Bergara.
- 2022/07/05: «Denboraren erabilera eta parte-hartze politikoa baldintza berdinetan». Pilar Legarra.
- 2022/11/28: «Maskulinitateak, aniztasuna eta politika publikoak». Miquel Missé.
- 2022/12/13: «Gizon politikariak eta politika publikoak». Gary Barker.

Azpmarratzekoa da arlo honetan egindako lana jardunbide egokitzat jo dela Promundok Save the Children, Oxfam, MenEngage Alliance eta Nazio Batuen Fundazioaren laguntzarekin egindako *State of the World's fathers 2021* txostenean.

2.5 «MASKULINITATEAK, BERDINTASUNA ETA GAZTE ATZERRITARRAK» PROIEKTUA

Gure gizartean beharrezkoa da gizonekin maskulinitateen inguruan lan egitea berdintasuna sustatzeko eta indarkeria matxista prebenitzeko. EAEn familia-erreferenterik ez duten gazte migra-
tzaileek bizi duten egoera espezifikoak zaildu egiten du hezkuntza formaleko programetan edo gure herrialdean dagoeneko garatzen diren beste programa batzuetan parte hartzea.

Hori dela-eta, maskulinitateen, berdintasunaren eta indarkeria matxistaren prebentzioaren ar-
loan kontzientziazioa eta sentsibilizazioa lantzeko helburuarekin, haiekin ere, beste gizarte-tal-
de batzuekin egiten den bezala, 2022an «Maskulinitateak, berdintasuna eta gazte atzerritarrak»
proiektua jarri zen abian, horien baldintzen espezifikotasuna kontuan hartuta.

Proiektua honako fase hauetan egituratzen da:

- 1. fasea: Egoeraren azterketa eta prestakuntzarako proposamenak egitea.
- 2. fasea: Programa pilotua martxan jartzea.
- 3. fasea: Programa pilotua ebaluatzea eta aztertzea.
- 4. fasea: Material didaktikoa egitea («erreminta-kutxa»).

Lehenengo fasean, adituekin elkarrizketak egin ziren, dokumentazioa berrikusi, egoera aztertu,
eta lehen programa bat egin zen, honako prestakuntza-ardatz hauekin:

- Maskulinitatearen eraikitzea.
- Sexualitatea(k).
- Indarkeria matxistak.
- Zaintzak eta ardurakidetasuna.

Programa pilotua abian jartzeko, honako erakunde hauen laguntza jaso da:

- BIDEBERRIA GUNEA (Urgatzi Elkarte). Vitoria-Gasteiz (Araba).
- IZANGAI. Bilbo (Bizkaia).
- KOLORE GUZTIAK. Donostia (Gipuzkoa).
- ELLACURIA FUNDAZIOA eta ALBOAN. Bilbo (Bizkaia).

19 lan-saio egin dira hainbat erakundetako gazteekin, guztira 32,5 ordu, eta 36 gaztek hartu dute parte. Indarkeria matxisten gaia jorratu den saioetan, Biltzen (Kultura arteko Integrazioaren eta Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua) erakundeko prestatzaile batek parte hartu du. Gainera, guztira 25 prestakuntza-ordu eman zaizkie 31 pertsonari, horietatik 10 gizonak dira eta 21 emakumeak, eta parte hartu duten bi erakundetako hezitzaile taldeetako kide dira (Bideberria gunea eta Kolore Guztiak).

Ebaluazioa oso positiboa izan da gazteen, prestatzaileen eta erakundeen aldetik. Ebaluazioetan honakoak nabarmentzen dira: helburuak betetzea, bertaratze-maila, parte-hartzaileen jarrera ona eta etorkizunean jarduera hori garatzen jarraitzeko interesa.

PARTE-HARTZAILEEN EBALUAZIOA	OROKORRA
1. Ikastaroaren balorazio orokorra	5,14
2. Gaiari buruz gehiago dakizu	4,88
3. Zure sentsibilizazioa areagotu egin da gaiaren inguruan	5,09
4. Edukiak	4,80
5. Prestatzaileak	5,41
6. Taldearen partaidetza	4,97
7. Erabilitako dinamikak	4,57

ERAKUNDEAREN EBALUAZIOA	OROKORRA
1. Emandako ikastaroarekiko gogobetetze-maila	5,00
2. Ikastaroak erakunde antolatzailearen aurreikuspenak eta helburuak bete ditu	5,67
3. Ikastaroa baliagarria izan da erakundearen esku-hartze programarako	5,33
4. Mutilen sentsibilizazioa areagotu egin da	4,33
5. Komunikazioa Gizonduz ekimenarekin	5,67
6. Bizkortasuna kudeaketan eta egutegian	5,00
7. Edukiak erakundearen beharretara egokitzeko gaitasuna	5,00
8. Prestatzaileen profesionaltasuna	6,00

HEZITZAILE TALDEARENTZAKO IKASTAROAREN EBALUAZIOA	OROKORRA
1. Ikastaroaren balorazio orokorra	5,25
2. Aurretiko ezagutza	3,80
3. Gaiari buruz gehiago dakizu	4,80
4. Zure sentsibilizazioa areagotu egin da gaiaren inguruan	5,50
5. Edukiak	5,20
6. Prestatzaileak	5,75
7. Dinamizazioa	5,45
8. Taldearen partaidetza	5,20
9. Antolamendua	5,20
10. Ikastaroa egin den lekua	4,85
11. Erabilitako materialak	5,00

Fase horiek garatzen amaitzeko, atzerriko gazteekin lan egiteko «erreminta-kutxa» bat egingo da, eta 2023an testatu eta argitaratuko da.

2.6 «GIZONOK ESAN ETA EGIN» KANPAINA

2018an aurkeztutako **kanpaina** honen bidez, Emakundek jarraipena eman nahi dio 10 urtetan baino gehiagotan zehar Gizonduz bidez egin den lanari, hala, EAeko gizonek aurrerapauso bat gehiago eman dezaten eta beren egunerokotasunean ekintza jakin batzuk egiteko konpromisoa har dezaten berdintasunaren alde, hala nola erantzunkidetasunaren esparruan, zaintzan, indarkeria matxista desagerrarazteko orduan, berdintasun-ideiak hedatzean edo mezu eta jarrera sexistak salatzeko orduan.



Horretarako, aplikazio informatiko bat jarri da horien eskura eta, urrats gutxi batzuetan, gizonok test bat egin dezakete beren sexismoa autoebaluatzeko; era berean, zenbait konpromiso aukera ditzakete, eta horiek praktikan jartzeko hainbat baliabide eta jarraipen-sistema bat eskaintzen ditu aplikazioak berak.

Gizonok berdintasunaren alde duten inplikazioa ikusgai egiteko, interesa duten gizonok beren konpromisoa publiko egiteko aukera ematen du aplikazioak. 2022ra arte, 263 gizon sartu dira aplikazioan eta konpromiso pertsonalak hartu dituzte beren gain.



Bideo honek esperientziaren ideiak eta helburuak laburbiltzen ditu.

«Gizonok esan eta egin» kanpaina

2.7. «GIZONEZKOAK, MASKULINITATEAK ETA POLITIKA PUBLIKOAK. BERDINTASUNAREKIKO KONPROMISOA» NAZIOARTEKO KONGRESUA. (Programarako esteka)

Gizonduz ekimenaren 15. urteurrena ospatzeko, «Gizonezkoak, maskulinitateak eta politika publikoak. Berdintasunarekiko konpromisoa» Nazioarteko Kongresua antolatu zen abenduaren 13, 14 eta 15ean Gasteizen.

Hona hemen kongresuaren helburuak:

- Berdintasun-politika publikoen arloan esku hartzeko lerrorik berezi eta aitzindarienetako bati ekitea, etorkizun hurbilean orokortu egingo dela aurreikusten baita.
- EAEk politika horien garapenean duen zeregin garrantzitsua agerian uztea, eta egindako lana, ibilbidea, bilakaera eta lan-ildo berriak berrikustea, etengabeko hobekuntzaren ikuspegitik.
- Esperientzien eta jardunbide egokien berri izan eta ematea, lege-mailan eta gizartean sortzen diren erronka berriei aurre egiteko. Lege-mailan, berdintasunerako EAEko legearen erreformak sortuko ditu erronkak, batez ere; gizartean, berriz, belaunaldirik gazteenetan matxismoak eta indarkeriak beren horretan jarraitzea eta feminismoaren eta berdintasun-politiken aurkako mugimendu neomatxistak ugaritzea dira erronka nagusiak.
- Gizonezkoekin egin beharreko lanari buruzko etorkizuneko proposamenak aditzera ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoen eta Berdintasunaren eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabeko bizitzen herrialde-itunaren esparruan.
- Gizonen konpromiso kolektibo eta indibiduala sustatzea berdintasun-politiken bidez, bereziki gazteena Eusko Jaurlaritzaren Berdinaldia ekimenaren barruan, gero eta gehiagok jardun dezaten berdintasunaren aldeko alaketaren eragile aktibo gisa, eta gero eta gutxiagok onar ditzaten indarkeriak edo jokabide matxistak euren inguruan; hortaz, «bortxaketaren kultura» deritzonaren oinarri diren dinamika sozialak eta pertsonalak apurtzen lagundu dezaten.

Guztira 49 pertsona bildu ziren, EAEko, Estatuko eta, besteak beste, Argentina, Estatu Batuak, Mexiko, Herbehereak, Portugal, Suedia eta Uruguaiako hizlari, koordinatzaile eta moderatzaileen artean. 466 pertsonak eman zuten izena (% 61,5 emakumeak; % 36,4 gizonak), baina, azkenean, 125 bertaratu ziren aurrez aurre eta beste 125 online konektatu ziren.

Kongresua jarraitzeko aplikazio mugikor espezifiko bat egin zen (programarekin, hizlarien curriculumekin, lan-mahaiekin, hizlarietako galderak egiteko espazioarekin, ebaluazioarekin...). Guztira, 137 pertsonak deskargatu zuten aplikazioa.

Besteak beste, kongresuak agerian utzi du garrantzitsua dela gizonen zaintzaren etika eta praktika orokortzea, ez bakarrik justiziaz partekatu behar den ardura gisa, bai eta indarkeria matxistaren eta menderatze-dinamiken antidoto gisa ere; izan ere, egindako azterlanen arabera, zaintzen ikasten duten eta zaintzen duten gizonak urrunago daude indarkeria erabiltzen duten eta inguruko pertsonak esplotatzen dituzten gizon izatetik. Beste «indar-ideia» bat haurtzaroarekin eta gaztaroarekin lan egiteko beharra izan da, adin goiztiarrenetatik lan egitea, gizonak eta emakumeak askatasunean garatzea eragozten duten rol eta estereotipoen inertzia biziki indartsuari aurre eginez. Kongresuak gizonekin modu positiboan lan egitearen garrantzia azpimarratzeko ere balio izan du, erantzukizunetik, baina errua egotzi gabe, entzunez eta haiengandik zer espero den esanez, eta ez hainbeste zer ez duten egin behar, eta txikitatik ikasi duten maskulinitate-ereduaren alternatibak planteatuz. Nabarmendu da, halaber, maskulinitateak ez direla gizonen gaia bakarrik, gizonena eta emakumeena baizik, eta garrantzitsua dela gizonen eta emakumeen aniztasuna eta pertsona bakoitzaren bizitzan eragina duten faktore eta baldintzatzaile guztiak kontuan hartuko dituen ikuspegi interseksional bati jarraitzea.

EKITALDIAREN PROGRAMA (bideoetarako estekak):

2022ko abenduaren 13a, asteartea (kongresuaren aurreko jarduera)

- Kargu publikoak betetzen dituzten gizonen topagunea. (Publikoari itxitako saioa).
- Jarduera paraleloa #Berdinaldia laborategia. (Publikoari itxitako saioa).
- **KONFERENTZIA IREKIA:** *Gizonei zuzendutako berdintasun-politikak, botere-harremanak eta genero-desberdinkeriak eraldatzeko tresna gisa.*
 - Mikel Otxotorena - Maskulinitateetan aditua.
 - Ana Requena - Kazetaria.
 - Roy Galán - Idazlea.
 - Octavio Salazar - Kordobako Unibertsitatea.
 - Moderatzailea: Edurne Baz. Kazetaria.

2022ko abenduaren 14a, asteazkena

GOIZEKO JARDUNALDIA

- **Inaugurazioa:**
 - Iñigo Urkullu – Lehendakaria
 - Beatriz Artolazabal - Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburua.
- **Esparru-hitzaldia:** *Gizonezkoak, maskulinitateak eta berdintasunerako politika publikoak: proposamenerako analisi bat.* Gary Barker.

- **Mahai-ingurua:** *Gizonezkoei zuzendutako berdintasun-politika publikoak. Estatuko Esperientziak.*
 - Miren Elgarresta - Emakunde - Emakumearen Euskal Erakundea.
 - Eva Istúriz - Nafarroako Berdintasunerako Institutua.
 - Kika Fumero - Kanarietako Berdintasunerako Institutua.
 - Laura Pérez - Bartzelonako Udala.
 - Moderatzailea: Eukene de Miguel. EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarte.
- **Mahai-ingurua:** *Beste leku batzuetatik ikasten, gizonezkoekiko lanaren eta berdintasunaren inguruko nazioarteko esperientziak.*
 - Bakea Alonso. CEPAIM Fundazioa.
 - Joni Van de Sand. MenEngage Alliance.
 - Lucho Fabbri. Santa Fé probintziako gobernua, Argentina.
 - Elena Goiriena. Montevideoko intendentzia, Uruguai.
 - Moderatzailea: Nerea Melgosa. Eusko Jaurlaritzako Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako aholkularia.

ARRATSALDEKO JARDUNALDIA

- **Elkarrizketa-mahaia:** *Politika publikoei, gizonezkoei, maskulintateei eta feminismoari buruzko gogoetak.*
 - Miguel Lorente - Granadako Unibertsitatea.
 - María Antonia Caro - Ekintzaile feminista.
 - José Ángel Lozoya Gómez - Berdintasunaren aldeko gizonen foroa.
 - Jokin Azpiazu - Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - Anastasia Téllez - Elxeko Miguel Hernandez Unibertsitatea.
 - Moderatzailea: Pilar Kaltzada. Kazetaria.
- Jarduera paraleloa #Berdinaldia laborategia. (Publikoari itxitako saioa).
- **Hitzaldia:** *Gizonak, boterea eta berdintasunerako politika publikoak.* Rita Segato.
- Sareak eta elkarrizketan jarduteko eta partekatzekeo eremua.

2022ko abenduaren 15a, osteguna

GOIZEKO JARDUNALDIA

- **1. Mahai tematikoa:** *Gazteak berdintasunean inplikatzeko. Berdintasunaren Belaunaldia: esperientziak eta proposamenak.*
 - Josetxu Riviere - Gizonduzeko idazkari teknikoa.
 - Isa Duque - Psico Woman.
 - Tatiana Moura -X-MEN programa, Portugalgo Maskulinitateen Behatokia.
 - Belén González - Andaluziako Tratu Onen Programa.

- Moderatzailea: Miren Saratxaga. Eusko Jaurlaritzako Gazteriako zuzendaria.
- » 1. Lan-mahaia: *Gazteak eta aniztasuna*.
 - Lluç Pagés - Irakaslea, gizarte-hezitzailea eta Tarragonako Udaleko Gizonezkoentzako Arreta Zerbitzua
 - Joseba Martínez de Guereñu - Berdindu, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzua LGTBI pertsonentzat.
- » 2. Lan-mahaia: *Gazteak, aisialdia eta denbora libre*.
 - Maialen Olabe - Euskadiko Gazteriaren Kontseilua
 - Oskar Longo - Gazteriaren behatokia
- » 3. Lan-mahaia: *Indarkeria matxisten prebentzioa*.
 - Oriol Ginés - Conexus, Bartzelona
 - Ana María Pérez - Zeuk Esan, Eusko Jaurlaritzako haurtzarorako eta nerabegarorako laguntza telefonoa
- 2. Mahai tematikoa: *Gizonezkoak, zaintzak eta erantzunkidetasuna*.
 - Benno de Keijzer - Veracruz Unibertsitatea / CIGU-UNAM.
 - Teresa Jurado - Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionala.
 - Vidar Vetterfalk - MÄN. Suedia.
 - Daniel Leal - Jerez Udala.
 - Moderatzailea: Marian Olabarrieta. Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen zuzendaria.
 - » 1. Lan-mahaia: *Maskulinitateak, gizonezkoak eta zaintzak*.
 - Edu Portilla - Aitei zuzendutako programa, Vitoria-Gasteizko Udala
 - Moufdi Kamel - Biltzen, Kultura arteko Integrazioaren eta Bizikidetzaren Euskal Zerbitzua.
 - » 2. Lan-mahaia: *Zaintza eta erantzunkidetasuna enpresan*.
 - Paco Abril - Men in Care
 - Garazi Artuñedo - Kontzilia, Bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzeko Eusko Jaurlaritzaren gunea
 - » 3. Lan-mahaia: *Maskulinitateak, autozaintza, eskusioa eta gizonezkoen arrisku-jokabideak*.
 - Karlos García - Gizonduz ekimenaren idazkaritza tekniko
 - Juan Blanco - Pablo de Olavide Unibertsitatea

ARRATSALDEKO JARDUNALDIA

- **Proposamenen mahaia:** *Etorkizuna berdintasunean. Etorkizuneko perspektibak gizonei zuzendutako maskulinitate eta berdintasuneko lanean.*
 - Zuriñe Elordi - Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea
 - Elena Leiñena - Euskal Herriko Unibertsitatea.
 - Leire Groven - Basauriko Udala.
 - Hilario Sáez Méndez - MenEngage Iberia.
 - Moderatzailea: Leire Idarraga. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saila.

- Jarduera paraleloa #Berdinaldia laborategia. (Publikoari itxitako saioa).

- **Berdintasunaren eta emakumeen aurkako indarkeriarik gabeko bizitzen herrialde-itunaren konpromisoak publikoki babesteko ekitaldia.**
 - Ager Izagirre. Mungiako alkatea ea EUDELeke zuzendaritza-batzordeko kidea.
 - Mikel Arregi. Emakunde laborategiko parte-hartzailea.
 - Marra Ngom. Munduko Medikuak.
 - Nieves Gamiz. CEBEKeke berdintasuneko arduraduna.
 - Alberto Encinas Bideberri, lagunduta ez dauden adingabeak hartzeko gunea.
 - Martín Leonet. Koldo Mitxelena ikastetxeko ikaslea.
 - Yon Gabirondo. Polmetasa enpresako industria-zuzendaria.
 - José Miguel Angulo. Arkaute Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiako teknika eta taktika polizialen atalburua.

- **Itxiera:** Miren Elgarresta Larrabide.

2.8 SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERAK

SENTSIBILIZAZIO- ETA PRESTAKUNTZA-JARDUERETAKO PARTE-HARTZEA

Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, zenbait komunikabidetan agertu gara, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduera ugaritan parte hartu dugu. Hauetan, adibidez:

- Martxoaren 12an, «Berdintasunezko maskulinitateak» izeneko hitzaldiarekin, InteRedek antolatutako II. Hezkidetza topaketan.
- Ekainaren 9an, Lizarrako Udalak antolatutako berdintasun-politika publikoen 25 urteko programaren barruan, «Beste begirada batzuk» mahaietan, Gizonduzen esperientzia partekatuz.
- Uztailaren 6an, Gema Fundazioak (Generoa eta Maskulinitateak) antolatutako «Maskulinitateak, Prestakuntzatik Ekintza Bateratura» ikastaroan, Argentinako Lazo Zuriaren Kanpainarekin batera.
- Irailaren 8an, Buenos Airesko (Argentina) Unibertsitateko Gizarte Zientzien Fakultateak antolatutako Maskulinitateen eta Gizarte Aldaketaren Diplomaturan, honako hitzaldi honekin: «Gizonduz. Emakunde-Emakumeen euskal erakundearen ekimena, gizonak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde gehiago inplikatu daitezen sustatzeko proposamena».
- Irailaren 14an, Kanarietako Berdintasun Institutuak antolatutako «Politika Publikoak eta Maskulinitateak» jardunaldietan.
- II. Nazioarteko Kongresuaren programaren barruan Miguel Hernández Unibertsitateak eta Maskulinitateen Behatokiak antolatutako «Maskulinitateak eta berdintasuna. Berdintasunerako eta hezkidetzarako hezkuntza», urriaren 21ean, mahai tematikoetako batean parte hartu zen honako hitzaldi honekin: «Gazteak Berdintasunean 2.0. Maskulinitateetan, berdintasunean eta indarkeria matxistaren prebentzioan egindako lanaren esperientzia».
- Azaroaren 9an, Biltzenek antolatutako «Maskulinitate Parekideak eta Kultur Aniztasuna» jardunaldian parte hartu zen.
- Azaroaren 24an Matiz elkarteak Bilbon antolatutako mahai-inguruan parte hartu zen, «Sozializazio maskulinoa eta aitatasun ardurakideak» gaiari buruz.
- Maskulinitate, genero eta berdintasunaren arloko unibertsitate-espezialistaren graduondoko titulu propioko irakaskuntzan jardun da, Elxeko Miguel Hernández Unibertsitatean.
- Euskal Herriko Unibertsitateak eta Madrilgo Unibertsitate Konplutentseak elkarlanean garatu duten Generoari, maskulinitateei eta gizarte-ekintzari buruzko unibertsitatearteko espezializazio-tituluaren irakaskuntzan jardun da.

2.9 AHOLKULARITZA ETA LANKIDETZAK

2022an, kontsulta guztiei erantzun zaie, aurrez aurre, posta elektronikoz nahiz telefonoz, bai Gizonduz ekimenari buruz, bai gizonekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako beste gai batzuei buruz.

3.0

Programaren helburuen jarraipena eta ebaluazioa

2016ko abenduan **Gizonduz ekimenaren prozesuari buruzko ebaluazioa eta emaitzak (2007-2015)** argitaratu ziren, baita horiei zegokien **betearazpen-laburpena** ere.

Atal honetan jasotako taulan, Gizonduz ekimenaren helburuen jarraipen- eta ebaluazio-adierazle batzuek 2022ra arte izandako bilakaera jasotzen da, eskuragarri dagoen informazioaren arabera.

Programaren lehenengo bi helburuei (1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea; eta 2. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren esparruan trebakuntza duten gizonen kopurua handitzea) dagozkien adierazleak emaitza-adierazleak dira, 1.5 adierazlea (Berdintasuna garrantzitsua dela ados edo oso ados dauden gizonen ehunekoa) izan ezik, inpaktu-adierazlea baita hori. Emaitza-adierazleek Gizonduz programan garatutako jarduera nagusietako batzuen ondorioak neurtzen dituzte, eta komeni da argitzea taulan badirela daturik ez duten gelaxka batzuk, aztertutako urteetan martxan jarri ez ziren jardueri buruzkoak baitira.

1.5 adierazlea eta programaren azken helburuari (3. Gizonen etxeko lanetan eta pertsonen zain-tzan duten ardurakidetasuna areagotzea) dagozkion guztiak inpaktu-adierazleak dira, eta eragin nahi den gizarte-errealitatean izandako aldaketak neurtzen saiatzen dira. Ezin da jakin programak zehazki zenbaterainoko eragina izan duen haren bilakaeran eta, ziurrenik, eragin mugatua izango du; izan ere, programaren aukerak gainditzen dituzten egiturazko faktore askoren arabera helburu bati lotutako gizarte-aldaketaren adierazleak dira. Hala ere, programak helburu hori lortzen lagundu nahi du, eta horregatik jaso dira taulan.

Bestalde, inpaktu-adierazleetan jasotzen diren datu gehienak urteko aldizkakotasuna ez duten estatistika edo azterlanetatik datoz. Horregatik, beti ez datoz bat adierazitako urtearekin. Taulan jasotzen diren datuak aipatutako urte bakoitzean eskuragarri zeudenak dira.

1. Emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sentsibilizatutako gizonen kopurua handitzea.	2007	2010	2015	2022
1.1 Gizonduz programako sentsibilizazio-ikastaro batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordura arte).	-	1.066	4.297	11.418
1.2 «Gazteak Berdintasunean 2.0» programan parte hartu duten gizonen kopurua.	-	-	-	2.579
1.3 EAEko gizonen eskutitza, berdintasunaren alde eta emakumeenganako indarkeriaren aurka delakoa sinatu duten gizonen kopurua. ⁶	-	10.230	10.289	10.381
1.4. «Gizonok esan eta egin» kanpainaren esparruan konpromiso pertsonalak sinatu dituzten gizonen kopurua.	-	-	-	263
1.5 Berdintasuna garrantzitsua den ideiarekin ados edo oso ados dauden gizonen ehunekoa. ⁷	% 77	% 77	% 91	% 99
1.6 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen sentsibilizazio-mailaren hazkunde batezbestekoa (1-6 eskala).	-	-	-	4,8
2. Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.	2007	2010	2015	2022
2.2 Gizonduz ekimenaren esparruan aurrez aurreko edo online prestakuntza-ikastaro espezifiko batean parte hartu duten gizonen kopurua (10 ordu edo gehiagokoak edo aprobetxamendu-testa duten 8 ordukoak).	-	34	1.096	8.282
2.3. Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza pertsonalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 96,80	% 94,65	% 97,75
2.4. Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikastaroak bizitza profesionalerako baliagarritzat jotzen dituzten gizonen ehunekoa.	-	% 86,60	% 89,75	% 96
2.5 Aurrez aurreko ikastaroetara joaten diren gizonen ezagutza-mailaren hazkunde batezbestekoa (1-6 eskala).	-	-	-	4,9
3. Gizonak ardurakideagoak izatea etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan.	2007	2010	2015	2021
3.1 EAEn gizonen etxeko lanetarako eta zaintza-lanetarako egunean batez beste emandako denbora. ⁸	-	4 o. eta 6 min.	4 o. eta 30 min.	4 o. eta 48 min.
3.2 EAEn gizonen egindako zaintza-lanen eta etxeko lanen ehunekoa. ⁹	% 28,6	% 28,6	% 33,3	% 32,8
3.3. Gizonen ehunekoa, ahaideak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ¹⁰	% 21,1	% 21,9	% 17,8	% 17,9
3.4. Gizonen ehunekoa, seme-alabak zaintzeko eszedentzia baliatzen duten pertsona guztien barnean. ¹¹	% 5,2	% 4,7	% 6,7	% 10,4

⁶ 2010etik aurrera ez da sinadurak biltzeko ekintza publikorik egin.

⁷ Iturria: Eusko Jaurlaritzako Lehendakartzaren Prospekzio Soziologikoen Kabinetea.


⁸ Iturria: *Lana, familia eta norberaren bizitza bateratzeari buruzko inkesta*. Eustat. 2020.

⁹ Iturria: *Etxeko lanari buruzko kontu-satelitea*. Eustat. 2020.

¹⁰ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.

¹¹ Iturria: Enplegu eta Gizarte Segurantzaren Ministerioaren estatistika. 2020.

Azkenik, jarraian, grafiko bat dago, Gizonduz programaren sentsibilizazio- eta prestakuntza-ikas-taroetan parte hartu duten gizonen kopuruaren aurrerapena jasotzen duena.





Manuel Iradier, 36
01005 Vitoria-Gasteiz
945 01 67 00
emakunde.gizonduz@euskadi.eus